

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

“Lanciego” izeneko VI-10.027 ehiza esparrua berritzeko eta legeztatzeko lurzatiak lagatzea

Lantziegoko udalbatzak, 2020ko uztailearen 2an egindako osoko bilkura berezian, erabaki du “Lanciego” izeneko ehiza esparru pribatua (matrikula: VI-10.027) berritzea, Lantziegoko udalerrriaren 2.423,39 hektarea hartzen dituena.

Ehiza esparru horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera hori, eragindako lursailen jabeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten.

Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hamabost egun balioduneko epean kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek isilbidezko baimena eman dutela ulertuko da, bai eta udal honek baimena daukala ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko ere.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Lantziego, 2020ko uztailearen 9a

Alkatea

ITZIAR DE ALAVA MARTÍNEZ DE ICAYA